

Iritsi da txotx denboraldi berria!

Sagardotegi gehienek ondorengo egunetan zabalduko dituzte ateak

Urte berria, sagardo berria. Urtero, urtarilla iristen denean, sagardozaileek zita garrantzitsua dute sagardo berriarekin. Upeletan dago 2006. urteko sagar-uztatik ateratako zuku preziatua, dastatzeko prest, nahiz eta oraingoz ez den bere une egokienera iritsi. Edaleak txotx-denboraldian zehar ez-tamia zuku irakinarekin bustitzeko zain daude.

Nolaikoak izango diren aurteño sagardoak? Sagardogileei galderaz badiuzu, erabat onak erantzun dizute, baina auskalo. Dena dela, arrazoi dextente daude, denboraldi ona izango dela espero izateko. Alde batetik, iazko sagar-uzta ona izan da gure herrian, eta ondorioz, ekoiztu duten sagardoa Euskal Herriko fruitu askorekin egina da. Hemengo sagarrak kanpokoak baino ezagunagoak dira, eta horregatik, sagar-nahasketen portzentajeak (gaziak, gozoak, garra-tzak...) hobeto kalkulatzeko dira. Horrez gain, normalean, hemengo fruituen egoera (heldutasuna, garbitasuna, etab.) ona izaten da. Ez da ahaztu behar kanpotik ekartzen dituztenek bidaia luzea egiten dutela kamioi batean sartuta, toldo batez estalita eta, batzuetan, temperatura handian. Bero galanta egiten duenean, sagarrak hartiz-tzen hasten dira, eta hori oso kal-

tegarria da sagarrentzat, bertatik aterako den zukuarentzat eta, are gehiago, sagardoarentzat.

Beraz, oro har, badirudi aur-tengo sagardoa oso ona izango dela, eta dastatzeko unea iritsi da.

Duela urte batzuk, sagardote-gietara sagardoa dastatzera berta-ratzen zen jende gehienak hainbat upeletatik dastatu, eta gero, gustu-koen iruditutakoa enkargatu edo erosten zuen, bai taberna edo jate-txe batera eramateko, bai elkarte gastronomikoetan urte guztian ze-har botilan edateko. Pixkanaka, das-taketa horrek ospea irabazi zuen, eta gaur egun ezagutzen dugun txotx-dastaketa da horren emaitza.

Dena dela, lehengo ohitura oraindik ere mantendu egiten da, baina egun, sagardotegietara pa-r-randa giro berezian egitera joaten da jende gehiena.

Astegunetako eta asteburueta-ko bezeroak bereizten dira. Astean zehar, herrikoak bertakoak edo he-rri ingurukoak agertzen dira; ba-tez ere, elkarteetako kideak edota koadrilak. Koadrila horiek lehen gizonezkoek bakarrik osatzen zi-tuzten, baina egun, emakumeak gero eta sarriago animatzen dira. Asteburuan baino giro lasaiagoa aurkitzen da astean zehar, eta egu-nik indartsuena osteguna izaten da.

Asteburuetako eguerdian fa-miliak ere bertaratzen dira, larun-batetan bereziki, hurrengo eguna jai baita. Haien asmoa ez da pa-r-randa egitea, baizik eta familiar-tean bapo bazkaldu, sagardoa das-tatu eta une lasai bat pasatzea, sagardotegiko giroan.

Asteburuetako arratsaldeetan, aldiz, edozein herritatik agertzen da jendea. Askok parranda-giroan egun ona pasatzeko asmoa izaten dute. Batzuek kilometro dezente egiten dituzte, alokatutako autobus



Josu Santesteban

Egun, sagardotegietara parranda giro berezian egitera joaten da jende gehiena.

Badirudi aurtengo sagardoa oso ona izango dela

batean etortzeko. Horrela, lasaita-sun osoz edateko aukera daukate, Ertzaintzak jarri ohi dituen alkoho-lemia-kontrolatan erori gabe, eta, nola ez, hori sagardotegietan eta he-rrietako kaleetan nabaritu egiten da. Sagardotegira joan baino lehen, asko edaten dute -kasu batzuetan, gehiegi ere bai-, eta sagardotegiko giroa pixka bat okertzen da.

Hori dela-eta, Gipuzkoako sa-gardoaren lurraldeko udalek, Hernanikoak bereziki, kanpaina bat aurkeztu dute, sagardo-ga-raian sagardotegietara joaten di-renei zuzendua, alkohol-konsu-mo arduratsua bultzatzeko eta elkarbizitza-arauak errespetatzearen alde: besteak beste, bizi-lagunen atsedenerako eskubidea.



LIZEAGA

Astigarraga

Eska ezazu Sagardoa,
eta etiketan LIZEAGA
jarriko balu askoz hobe.

EDAN ETA EMAN EDATERA